Edukia

1.- AURREKARIAK ETA XEDEA 2

2.- PROZEDURAREN EDUKIA 3

2.1.- Kontuan hartu beharreko fenomenoak 4

2.2.- Atalase-balioak, abisu-mailak eta zonifikazioa 4

3.- PROZEDURA OPERATIBOA 19

3.1.- Prozedura aktibatzea 19
3.1.1. Jakinarazpenak sortzeko arau bereziak 20

3.2.- Abiarazte- eta jarraipen-fasea 21

3.3.- Aurreikusitako fenomeno kaltegarriaren maila zehaztea 22

3.4.- Jarraipen-batzordeak 23
3.4.1. Jarraipen-batzordeen osaera 23

3.5.- Abisu-maila ezberdinetan jardutea 25
3.5.1. Maila horia 25
3.5.2. Maila laranja 25
3.5.3. Maila gorria 26

3.6. Ohiz kanpoko inpaktua izango duten fenomeno meteorologiko kaltegarriak iragartzeko, zaintzeko eta horien aurrean jarduteko Prozeduraren operatibitatea 27

3.7. Jakinarazpenak zabaltzea 28

4.- PROTOKOLOA BERRIKUSTEA 29

I. ERANSKINA – UR EMARIA NEURTZEKO ESTAZIOEN ETA UHOLDE ARRISKU HANDIKO EREMUEN MAILAK UHOLDEEN AURREAN 30

II. ERANSKINA – ABISUEN MAILA ZEHAZTEKO AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDAGAIAK ETA IRIZPIDEAK 35

III. ERANSKINA – PLANEN, PROGRAMEN ETA PROZEDUREN ZERRENDA 38

IV. ERANSKINA – JAKINARAZPENAK JASOKO DITUZTEN ERAKUNDEEN ETA ZERBITZUEN GUTXIENEKO ZERRENDA (*) 39

1.- AURREKARIAK ETA XEDEA

Dokumentu honen bidez, meteorologia kaltegarriarekin lotutako abisu/alerta/alarmak sortzeko prozedura garatuko dugu; horretarako, prozeduran parte hartzen duten erakundeen artean informazioa trukatzeko mekanismoak zeintzuk diren ezarriko dugu, horien jarraipena ere egingo dugu, organismo eta erakundeek aktibazioa abiarazteko neurriak zehaztuko ditugu, eta EAEko herritarrei informazioa emango diegu, fenomeno horiei aurre egiteko prebentzioko lehen jarduerak gauzatze aldera.

Dokumentu hau prestatzeko Europako EMMA (European Multi-service Meteorological Awareness) proiektuan oinarritu gara, haren helburu nagusia herritarrei ematen zaien informazioaren formatua sinkronizatzea baita, Europa osoan fenomeno meteorologiko kaltegarriei lotutako arrisku-pertzepzioa antzerakoa izan dadin.

Oro har, pertsonei zuzenean edo zeharka kalteak eragin diezazkieten edo kalte material nabarmenak eragin ditzaketen gertaera atmosferikoak jotzen dira fenomeno meteorologiko kaltegarritzat. Zentzu zabalagoan, inguru espazial zehatz batean, gizakien jarduera nabarmen alda dezakeen edozein fenomeno ere bai.

Horren ondorioz, kaltegarriak dira, berez, aldagai meteorologikoak muturreko balioetara heltzen diren egoerak. Bestalde, baliteke potentzialki kaltegarriak izatea bestelako kalteak eragin ditzaketen egoerak, nahiz eta meteorologikoak ez izan. Baliteke, halaber, normalean kaltegarritzat jotzen ez den egoera bat ezbehar larria izatea, ezusteko beste gertaera batzuk jazotzen badira. Adibidez, zenbait ezbehar natural edo giza jardueren ondoriozko istripuak gertatzen direnean.

Fenomeno Meteorologiko Kaltegarriak Iragartzeko, Zaintzeko eta horien aurrean Jarduteko Prozeduraren xedea da, dugun esperientzian oinarrituta, jardun normalizatuen bidez hainbat eskakizuni erantzutea, ahalik eta estaldura eta eraginkortasun handiena bermatu ahal izateko; bai eta zaintza «integralaren» (edozein fenomeno kaltegarri, edozein garaitan, lurralde osoan, noiznahi) arazoa konpontzea ere, modu egonkorrean, gerta daitezkeen askotariko egoeretan behar bezala jarduteko.

Horrenbestez, prozedura horren helburua da aurreikusten diren fenomeno meteorologikoei buruzko informazio onena eta eguneratuena herritarrei, erakundeei, enpresei eta hedabideei helaraztea, bai eta fenomeno horiek sortu ondoren horien bilakaerari buruzko informazio puntuala eta kalteak minimizatzeko jarraibideak eta aholkuak ematea ere.

Prozedura honek ezartzen du zer fenomenok eta aldagai meteorologikoen zein kantitatek eta zein intentsitatek eragin diezaieketen herritarrei eta zein neurritan. Horretarako, erreferentziazko hasiera-atalase batzuk zehazten dira; horiek, a priori, adierazten baitute gizartearen sektore batean edo gehiagotan arazo txikiak izaten hasteko aukera. Hori dela eta, atalase horiek meteorologia kaltegarriari buruzko abisuen hasiera ekartzen dute.

Meteorologia-egoera ezberdinen kaltegarritasuna sailkatzeko, oro har, hiru atalase ezartzen dira egoera edo aldagai bakoitzerako eta, horietatik abiatuta, kolorearen arabera lau maila bereizten dira. Lehena **berdea** da eta egoera kaltegarririk ez dagoela adierazten du. Beste hiru mailak **horia, laranja eta gorria** dira. Abisu maila horia erabiltzaileak ohartarazteko baino ez da, eta beste biak, berriz, alerta eta alarma abisuak, hurrenez hurren.

Aldagai meteorologiko bakoitzaren arabera, atalaseak gutxi gorabehera homogeneoak diren eremuetan banatzen dira, gaur egungo sistema meteorologikoek iraganean baino informazio xehatuagoa ematen baitute.

Fenomeno meteorologiko bat aurreikusten denetik edo aurreikusi gabeko fenomeno kaltegarri bat ikusten denetik azken hartzaileari abisua bide "klasikotik" (hau da, partea pdf formatuan, mezu elektroniko bidez...) iristen zaion arte, gutxieneko denbora 60 minutu izaten da. Horregatik, prozesu meteorologiko azkarretan (ekaitzak, enbatak…), jarraitu beharreko urrats eta prozedurak ez dira bide klasiko horretatik bideratuko, denbora errealeko ekintzen bidez baizik, berehalako komunikabide baten bitartez, hala nola, Twitter-eko @Euskalmet kontuaren bidez.

Azkenik, ez dugu ahaztu behar prozedura horren helburua ez dela abisuak, alertak eta alarmak ematea ezarritako atalaseak gainditu direlako, baizik eta fenomeno meteorologiko kaltegarriek eragin dezaketen "inpaktuarekin" lotuta dagoen arriskua aintzat hartu delako. Esan gabe doa horrek are zailago egiten duela iragarpenak egitea, baina, hala ere, fenomeno meteorologiko kaltegarriak herritarrengan izan dezakeen eraginari buruzko informazio zehatzagoa jasotzeko aukera eskaintzen du, kolorearen araberako kodearen bidez identifikatuta.

2.- PROZEDURAREN EDUKIA

Dokumentu hau osatzen duten elementuak honako hau dira: alde batetik, abisua behar duten fenomeno meteorologiko kaltegarriak, haien gutxi gorabeherako mailak, aldagai bakoitzerako zonifikazioak eta kaltegarritasun-atalaseak. Bestetik, kanpora ematen den informazioarekin lotutako guztia (abisu buletinak, Twitter, bidalketa moduak) eta aipatutako buletinak eta jakinarazpenak sortzeko, transmititzeko eta idazteko arauak ere prozeduraren parte izango dira. Era berean, fenomeno baten jarraipena egiteko batzordeak (mahaiak) noiz osatuko diren azaltzen da, gertaerek aurrera egin ahala neurriak hartzeko.

2.1.- Kontuan hartu beharreko fenomenoak

Dokumentu honetan, kaltegarritzat joko dira Euskalmetek/LAEMZek halakotzat hartzen dituen fenomeno meteorologiko guztiak. Horrenbestez, egoera horietan, meteorologia kaltegarriaren jakinarazpen bat igorriko da, eta dokumentu honetan abisuen sorrerari eta komunikazioari buruz azaltzen dena bete beharko da.

Meteorologia-egoera kaltegarri horiek (edo meteorologia funtsezko eragilea den eta antropogeneizazioari lotutako arrisku-egoerak) erregistratutako edo aurreikusitako egoeretan honako parametro hauen zenbait atalase gainditzearekin lotuta daude:

a). Euriteak.

b). Elurteak.

c). Haizeak.

d). Tenperaturak:

d1). Izozteak / Muturreko tenperatura baxuak.

d2). Tenperatura altu iraunkorrak.

d3). Muturreko tenperatura altuak.

e). Itsasoko-kostako arriskua.

f). Uholdeak.

g). Baso-suteen arriskua.

h). Beste batzuk.

Hurrengo puntuan, abisuak aktibatzeko gutxi gorabeherako atalaseak eta horien sailkapena zehazten dira.

2.2.- Atalase-balioak, abisu-mailak eta zonifikazioa

Ahalik eta informazio egokiena eta Europako EMMA proiektuan zehaztutako irizpide berriekin bat datorrena emateko, oinarrizko lau kaltegarritasun-maila ezarri dira.

Atalase horiek finkatzeko irizpide misto bat jarraitu da: alde batetik, klimatologikoa, birgertatze-aldiei lotutakoa eta, bestetik, herritarrentzako arriskugarritasun-kontzeptuari eta kaltegarritasun-mailari lotutakoa, hau da, espero daitekeen inpaktua.

Eskema idealizatu batean, inpaktu-maila desberdinek, hau da, kaltegarritasun-mailek egoera kaltegarriekin dute zerikusia; hala, maila horiek gainditu ostean, eragozpenak edo kalte arinak (abisu horia), kalte mugatuak eta/edo lokalizatuak (**alerta laranja**) eta kalte larriak eta/edo orokorrak **(alarma gorria**) eragin ditzakete.

Mailen izenak eta esanahiak honako hauek dira:

MAILA BERDEA

Ez dago meteorologia-arriskurik.

MAILA HORIA

Ez dago herritarrentzako meteorologia-arriskurik, baina bai jardueraren baterako (meteorologia-fenomeno ohikoak baina arriskutsuak izan daitezkeenak).

Urtero-urtero hainbat aldiz gerta daitezke. Horrenbestez, abisu-maila da, ez alerta.

Espero daitekeen inpaktu-maila arina edo baxua da; horrenbestez, **kontuz ibiltzeko** eskatzen da.

MAILA LARANJA

Meteorologia-arriskua handi samarra da.

Maila laranjako egoera horiek oso gutxitan gertatzen dira urtean, normalean behin. Kalteak, bereziki zenbait sektoretakoak, handiak izaten hasten dira eta pertsonen osotasun fisikoa arriskuan dago. Alerta-egoera eragiten du.

Espero daitekeen inpaktu-maila moderatua edo altua da; horrenbestez, **gomendioak** ematen dira.

MAILA GORRIA

Meteorologia-arriskua muturrekoa izaten da (ezohiko fenomeno meteorologikoak eta bereziki bortitzak).

Egoera horiek hainbat urtetan behin gertatzen dira, eta arrisku handia eragiten diete herritarrei. Kalte materialak oso handiak izan daitezke, edo herritarren sektore baten osotasun fisikoa arriskuan jar dezakete. Alarma-egoera eragiten du..

Espero daitekeen inpaktu-maila oso altua edo muturrekoa da; horrenbestez, **jarduera batzuk debeka daitezke.**

Ondoren, aldagai bakoitzerako, abisu-maila horia abiarazteko gutxi gorabeherako atalase-balioak zehaztuko dira, bai eta beste maila batzuetara igarotzeko faktoreak zeintzuk diren ere. Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak maila horia zehazten duten atalaseak erabiliko ditu protokolo hau abian jartzeko.

Inguruabar zehatzen arabera, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak maila horia aktiba dezake prozedura honetan aurreikusten direnez bestelako atalase batzuekin, egoeraren arriskugarritasuna edo egoerak eragin ditzakeen ondorioak kontuan hartuta. Hortaz, protokolo hau fenomeno meteorologikoekin lotutako gertaerak egiaztatu ondoren aktibatu ahal izango da, atalaseetara ez iritsi arren.

Maila laranjarako eta gorrirako jarraian adieraziko ditugun atalaseak orientagarriak dira. Horietara iristean, izango diren baldintzak hartu beharko dira kontuan. Dena den, zalantzarik izanez gero, erreferentzia moduan erabili ahal izango dira.

Euriteen kaltegarritasun-atalaseak

Erabiltzaile guztientzako egokiak diren euri-atalaseak zehaztea ia ezinezkoa da, gerta daitezkeen egoera ezberdinak direla medio: lurraren hezetasun-egoera, ibaien eta urtegien egoera, euriaren hedapena eta eremuak, euri mota (iraunkortasuna eta intentsitatea), landarediaren egoera, elur-kota, desizozteak eta urte-sasoia, funtsean. Horri gehitu behar zaizkio eremu arazotsu bakoitzaren kontzentrazio-denbora desberdinak. Hortaz, honako gutxi gorabeherako atalase hauek hartzen dira kontuan:

Zona / mota / maila	Prezipitazioa 24 orduan (l/m²)			Prezipitazioa ordu bakarrean (l/m²)		
	horia	laranja	gorria	horia	laranja	gorria
Autonomia-erkidegoa	[60 – 80)	[80 – 120)	≥120	[15 – 30)	[30 – 60)	≥60

Lehen blokea (24 ordu) prezipitazio iraunkor eta normalean hedatuei dagokie, eta ibai nagusiek uholdeak eragiten dituzten lekuetakoa da. Kasu batzuetan, bereziki, Zadorrako edo Butroeko arroetan, esate baterako, edo lurzoruan edo urtegietan ur asko pilatzen den garaietan, euriteen kaltegarritasun-abisuak balio-muga estuagoekin bidali ahal izango dira, arriskuagatik hala komeni bada. Nolanahi ere, behar bezala azalduko da hori abisuaren oharren artean.

Bigarren blokea (ordu 1), prezipitazio bortitzei dagokie, eta normalean ez dira oso iraunkorrak izaten. Euri horien aldaera bat oso iraupen laburreko (normalean, 20 minutu baino gutxiago) eta hedapen txikiko zenbait ekaitz izaten dira. Intentsitate handikoak izaki (10-15 l/m² 10 minutuan), arazoak edo uholde txikiak eragin ditzakete hirietan, industrialdeetan eta errepideetan. Euri horiekin batera tximistak, kazkabarra, haize-bolada handiak eta batzuetan tornadoak ere ager daitezke.

Zonifikazioa: Abisuetan, eskualdeei, lurralde historikoei, ibai-arroei, isurialdeei edo eragina lehen-lehenik jasango duten guneei buruzko lurralde-informazioa emango da.

Elurteen kaltegarritasun-atalaseak

Gaur egungo gizartearen mugikortasun handia dela-eta, elurrak oztopo ugari eta galera ekonomiko handiak eragiten ditu, errepideei eragiten dienean. Horregatik, meteoro hau definituko duten atalaseak ez daude irizpide klimatologikoekin soilik lotuta. Neguan kaleak eta errepideak garbitzeko lanak ere irizpidetzat joko dira, elurrak gizarteari eragiten dion inpaktua minimizatzen duten aldetik. Horretarako, hiru zonifikazio ezarri dira; lehena 700 metrotik 1.000 metrora bitarteko altuerarako; bigarrena 300 metrotik 700 metrora bitarteko altuerarako, eta hirugarrena 300 metrotik beherako altuerarako. Lehenbiziko zonifikazioak

Arabako mendialdeko errepide guztiak hartzen ditu eraginpean. Bigarrenak Araba osoari eragiten dio, bai eta Bizkaiko eta Gipuzkoako barnealdeko zati handi bati ere, eta hirugarrenak kostaldetik gertuen diren guneetara ere hedatzen ditu arazoak.

Euriaren kasuan bezala, zaila da iragartzea puntu bakoitzeko elur-kota, zuritze-maila, elurraren dentsitatea, prezipitazio-kantitatea eta -intentsitatea, elurtegiak sortuko diren…

Horregatik, balio horiek guztiak kalkulatzeko zailtasunagatik, 24 ordurako gutxi gorabeherako atalaseen taula hartuko da erreferentzia moduan. Taula hori kontsultatzean, kontuan hartu behar da metro koadro bakoitzeko litro bat elur (l/m²) lurrean zentimetro bat elur izaten dela.

altitudeak	Horia	Laranja	Gorria
0-300	2 cm-ra arteko elur-geruza	[2-5) cm	≥5 cm
300-700	5 cm-ra arteko elur-geruza	[5-20) cm	≥20 cm
700-1.000	10 cm-ra arteko elur-geruza	[10-40) cm	≥40 cm

Garrantzitsua da aintzat hartzea elur-kota ez dela homogeneoa, eta, iragarpen-buletinetan, kota probableentzat hartzen dela lurrean zuritutako elurra ikusten hasten den tokia. Iragarritako elur-kota oso ezberdina bada EAEko kokapen geografikoaren arabera, komunikatuan jakinaraziko da.

Komunikatuari beste txosten bat erantsiko zaio, Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzari, foru-aldundietako errepideen zuzendaritzei eta herri eta hirietako bide garbiketaz arduratzen diren zerbitzuei zuzendutako informazio osagarriarekin. Txosten horiek 1.500 metrotatik behera elurra iragarri den guztietan sortuko dira.

Zonifikazioa: Abisuetan, eskualdeei, lurralde historikoei, ibai-arroei, isurialdeei edo eragina lehen-lehenik jasango duten guneei buruzko lurralde-informazioa emango da.

Haizeteen kaltegarritasun-atalaseak

Haizeari dagokionez, kaltegarritzat joko da zuhaitzak eta adarrak, erlaitzak edo hormak botatzen dituena, objektuak bota eta horren ondorioz objektu horiekiko inpaktuak eragiten dituena, garraio sareari trabak eragiten dizkiona, nekazaritzan, eraikuntzan eta industrian kalteak sortzen dituena eta heriotzak ere eragin ditzakeena.

Kalte horietako gehienak haize-ufada motzek edo ia berehalakoek sortzen dituztela kontuan harturik, atalaseek **haize-bolada handienari** soilik erreferentzia egitea erabaki da, batez besteko haize-abiadurari egin beharrean.

Toki eta une bakoitzean izango diren haize-boladak zehaztea ezinezkoa da, haizea ausazkoa izaten baita lur konplexuetan, Euskadin kasu. Hori dela-eta, bi zona soilik bereiziko dira. Bata, zona arriskutsua: kostaldea oro har, mendialdeko inguruak…; eta bestea, ez-arriskutsua, hau da, hiri eta herri gehienak eta autonomia-erkidegoko gainerako eremuak. Dena den, erabiltzaileak oro har badaki zenbait egoera sinoptikok oso haize-bolada bortitzak eragiten dituztela hainbat tokitan; normalean, kanalizazioengatik edo beheranzko haizeengatik. Adibidez, Urduñan eta Ezkerraldean SW-ko haize-bolada bortitzak dabiltzanean; Elorrion, SSE-koak; edo Guardian, N-koak. Erabiltzaileak egoera eta toki horiek hartu beharko ditu kontuan eta zona arriskutsuetarako neurriak hartu beharko ditu, nahiz eta puntu zehatz horiek zona arriskutsukoak ez izan. Abisuak emateko hartuko diren gutxi gorabeherako balioak honako hauek dira.

Zona / mota / maila	Gehieneko haize-bolada (km/h)		
	horia	laranja	gorria
Zona arriskutsua	[100 – 120)	[120 – 140)	≥ 140
Zona ez-arriskutsua	[80 – 100)	[100 – 120)	≥ 120

Tenperaturen kaltegarritasun-atalaseak

Tenperaturen kasuan, gizarteari kalteak eragiten dizkioten hiru egoera daude: «izozteak / muturreko tenperatura baxuak», «muturreko tenperatura altuak» eta «tenperatura altu iraunkorrak».

"Tenperaturek eragindako kaltegarritasun-atalase guztietarako" lau *"zona homogeneo"* zehaztu dira; kostaldea (itsasotik oso hurbil dauden udalerriak), Zonalde kantauriarraren barnealdea (isurialde kantauriarraren gainerakoa, Bilbo ere barne hartuta), iragate-zona (Arabako Lautada eta inguruak) eta Ebro ondoko eskualdea (Arabako Errioxa, Zanbrana eta inguruak). *Ikusi atxikitako mapa.*



- **Izozteak / Muturreko tenperatura baxuak:** Termometroa balio negatiboetara iristen denean, gure gizartean izaten den ondorio larrienetakoak zirkulazio-istripuak izaten dira, errepidean izotza dagoelako. Horregatik, tenperatura negatiboak iragartzen direnean, zorua bustita egoteko probabilitatea ere baldin badago, abisu horia emango da gutxienez zona horretarako. Izozteak ohikoagoak izaten dira haize gutxiko egunetan, zerua oskarbi dagoenean eta bailaren hondoan. Egun haizetsuetan, berriz, hotz handiagoa egiten du, eta izozteak altitude garaietan izaten dira larriagoak.

Errepide guztietan izotza izateko zantzua edo iragarpena izango balitz (izozte-aldi baten ondoren fronte bat sartu delako, tenperaturak asko jaitsi direlako lurra bustita dagoenean, edota euri izozkorragatik), abisuan behar bezala jaso beharko da.

Hotz-boladak, hau da, hotzak hainbat egunez irauten duenean, «Izozteak / Muturreko tenperatura baxuak» egoera moduan hartuko dira, eta egoerak iraun egingo duela adieraziko da komunikatu baten bidez. Kasu horretan, sentsazio termikoari eta egoeraren iraupenari emango zaie garrantzi handiagoa, iragarritako gutxieneko tenperaturei baino.

Zonaka, hauexek dira egoera bakoitza mugatzen duten atalase-balioak:

Zona	TENPERATURAK GRADU ZENTIGRADUTAN		
	HORIA	LARANJA	GORRIA
Kostaldea	≤ 0	≤ -2	≤ -4
Zona kantauriarraren barnealdea	≤ 0	≤ -4	≤ -7
Iragate-zona	≤ 0	≤ -6	≤ -10
Ebro ondoko eskualdea	≤ 0	≤ -5	≤ -8

- **Muturreko tenperatura altuak:** Muturreko tenperatura altuen ondorio larriena pertsonek bero-kolpeak jasateko arrisku handia izaten da, ezin dutelako gorputzeko beroa arindu. Arriskua handiagoa da hezetasun erlatibo altuak daudenean, gorputzak ezin duelako izerditu, edota haizerik ez dabilenean. Horregatik, ondoko atalase hauek ezarri dira:

Zona	TENPERATURAK GRADU ZENTIGRADUTAN		
	HORIA	LARANJA	GORRIA
Kostaldea	≥ 30	≥ 35	≥ 37
Zona kantauriarraren barnealdea	≥ 33	≥ 38	≥ 40
Iragate-zona	≥ 34	≥ 37	≥ 39
Ebro ondoko eskualdea	≥ 35	≥ 38	≥ 40

- Tenperatura altu iraunkorrak; "*Tenperatura altu iraunkorren egoera*" dagoela esango dugu zona baterako edo gehiagotarako iragarritako eguneko gehieneko eta gutxieneko tenperaturek ezarritako atalaseak gainditzen dituztenean, hau da:

- **Kostaldean** eguneko gehieneko eta gutxieneko tenperaturek 27 ºC-ak eta 19 ºC-ak gainditzen dituztenean, hurrenez hurren.
- **Zona kantauriarraren barnealdean** eguneko gehieneko eta gutxieneko tenperaturek 33 ºC-ak eta 17 ºC-ak gainditzen dituztenean, hurrenez hurren.
- **Iragate-zonan** eguneko gehieneko eta gutxieneko tenperaturek 33 ºC-ak eta 17 ºC-ak gainditzen dituztenean, hurrenez hurren.
- **Ebro ondoko eskualdean** eguneko gehieneko eta gutxieneko tenperaturek 34 ºC-ak eta 18 ºC-ak gainditzen dituztenean, hurrenez hurren.

Tenperatura altu iraunkorrekin herritarrek jasaten dituzten arazoak ez dira muturreko tenperatura altuak daudenean izaten dituztenak. Izan ere, bero iraunkorrak, batez ere, eraikinak berotzen ditu, eta, horren ondorioz, pertsonek ezin dute lo hartu eta ez dute behar bezala atseden hartzen. Horregatik, tenperatura kaltegarri hauen arriskua iraupena izaten da; beraz, hauek dira gutxi gorabeherako atalaseak:

Zona	**EZARRITAKO ATALASEAK GAINDITZEN DITUZTEN ONDOZ ONDOKO EGUNEN KOPURUA**		
	HORIA	**LARANJA**	**GORRIA**
Kostaldea (gutx. t.≥19, geh. t. ≥28)	**1 edo 2 egun**	**3 edo 4 egun**	**5 egun edo gehiago**
Zona kantauriarraren barnealdea (gutx. t.≥17, geh. t≥32)	**1 edo 2 egun**	**3 edo 4 egun**	**5 egun edo gehiago**
Iragate-zona (gutx. t.≥17, geh. t≥33)	**1 edo 2 egun**	**3 edo 4 egun**	**5 egun edo gehiago**
Ebro ondoko eskualdea (gutx. t.≥18, geh. t≥34)	**1 edo 2 egun**	**3 edo 4 egun**	**5 egun edo gehiago**

0

Dena den, beroaren eraginak nagusiki osasunarekin lotuta egoten dira; eta hortaz, Osasun Sailarekin batera lan egiten dugu, balio horiek egokitzeko eta herritarrenganako gomendioen eta inpaktuen arloan.

Itsasoko-kostako kaltegarritasun-atalaseak

Kostaldetik gertu dauden uretan, haizearen intentsitatean eta noranzkoan aldaketa bortitzak eta olatu zakarrak eragin ditzaketen egoerak hartzen dira kaltegarritzat, horien ondorioz portuetako instalazioetan kalte nabarmenak, ontzien hondoratzeak, arazoak itsasoko jarduera ludikoetan, gizakien heriotzak portuetan eta hondartzetan, uholdeak edo arazoak kostaldeko lehen lerroan eta tankera horretakoak gerta baitaitezke.

Horrelako egoera kaltegarriak daudenerako, hiru arlo bereizten ditugu, nabigazioarekin lotutakoa, enbatekin lotutakoa eta kostaldearen gaineko inpaktua iragartzearekin lotutakoa.

Nabigazioa: Bloke honen barruan sartzen dira nabigazioa eta kirol-aisialdiko jarduerak kostaldetik lehenengo 2 itsas-milietara. Kaltegarritasun-mota horretan, atalaseak olatuen altueren araberakoak edota itsasoaren egoeraren araberakoak izango dira. Edonola ere, haize-itsasoa eta hondoko itsasoa bereiziko dira, eta itsaso nahasia aurreikusten denean adieraziko da. Arreta berezia jarriko da itsaso kaotikoa sortzen den egoeretan. Jarraian, egoera horietarako gutxi gorabeherako atalaseak (*) adieraziko ditugu; izan ere, horietaz gain, kaltegarritasuna handitzen edo txikitzen duten beste hainbat aldagai ere kontuan hartzen dira; hala nola, urteko sasoia, ordutegia, gertaera bortitza den, haizearen egoera… Haize bortitza dagoenean, bereziki hegoaldekoa bada, Beaufort eskala kontuan hartuko da.

Horia	Laranja	Gorria
Itsaso zakarra edo kostaldean 3,5 metrotik 5 metrora bitarteko olatuak.	**Itsaso oso zakarra edo kostaldean 5 metrotik 7 metrora bitarteko olatuak.**	**Itsaso handia edo kostaldean 7 metrotik gorako olatuak**

(*) Udako bainu-sasoi ofizialean (ekainaren 15etik irailaren 30era) olatuaren altuera adierazgarriaren atalaseak metro eta erdi murriztuko dira (**2 metro horian, 3,5 metro laranjan eta 5,5 metro gorrian**).

Enbatak edo antzekoak: Enbata zera da, kostaldeko nabigatzaileei eta hondartzetako erabiltzaileei arazo larriak eragiten dizkieten haizearen abiadura eta norabide aldaketa bortitzak. Normalean, halako fenomenoak udaberrian eta udan izaten dira arriskutsuagoak. Halakorik gertatzeko aukera aurreikusten den guztietan, abisua emango da. Ekaitzek, haize-sarrera bortitzak eta fronteak izaten direnean, zenbait kasutan enbaten tankerako ondorioak izan ditzakete hondartzetako erabiltzaileentzat eta nabigatzaileentzat; horrenbestez, kontzeptu honen barruan sartuko dira.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak gutxi gorabeherako honako atalase hauei jarraiki emango ditu abisuak:

MAILA	EZAUGARRIAK
HORIA	**Itsasoa: Haizea bat-batean aldatzen da; normalean ipar-mendebaldera egiten du, 6ko indarrarekin.** **Lurra: Haizeak bat-batean ipar-mendebaldera egiten du, eta kostaldean 60 km/ordutik gorako haize-bolada bortitzak eragiten ditu.**
LARANJA	**Itsasoa: Haizea bat-batean aldatzen da; normalean ipar-mendebaldera egiten du, 7ko indarrarekin.** **Lurra: haizeak bat-batean ipar-mendebaldera egiten du, eta kostaldean 90 km/ ordutik gorako haize-bolada bortitzak eragiten ditu.**
GORRIA	**Itsasoa: Haizea bat-batean aldatzen da; normalean ipar-mendebaldera egiten du, 8ko indarrarekin.** **Lurra: Haizea zakar biratuko da, gehienbat ipar-mendebalderantz; urakan-haizea izango da boladaka, 120 km/ordutik gorako abiadurarekin itsasbazterrean.**

Kostaldearen gaineko inpaktua Gure gizartean azpiegitura asko kostaldeko lehen lerroan egoten dira, esaterako, portuak, itsas pasealekuak, hondartzetako azpiegiturak, kostaldeko errepideak, eta kaleak eta herriak ere bai. Azpiegitura horiek denboraleen enbatak jasaten dituzte, baina enbata horien inpaktua itsasoaren egoeraren araberakoa ez ezik, beste aldagai askoren araberakoa ere izaten da, esaterako, marea bizien edo hilen aldi batean gauden, denboralearen muturra itsasgorarekin bat datorren ala ez, olatu mota zein den, olatu horren potentzia eta norabidea, kostalde mota… Hori dela eta, zerrendatutako aldagai horiek denboraleek historikoki eragin dituzten kalteekin gurutzatzen dituzten indize batzuk bilatu dira. Indize horiek gainezkatze kontzeptuan oinarritzen dira, hau da, olatuek, aldagai askoren arabera, gure kostaldean altuera batzuk gainditzeko edo urez betetzeko duten gaitasunean.
Horregatik, itsasgora bakoitzean bi gainezkatze-indize (olatuen maila, itsas-mailaren gainean dagoen elementu bat ukitzen dutenean) emango dira, balio-tarte bat balitz bezala; eta indize horietako bat altura probableena izango da eta bestea une horretan izan litekeen gainezkatze-altuera maximoa. Hurrengo abisu bakoitzean “ikusitako fenomenoak” kapituluaren barruan, a posteriori behatutako datuetan oinarrituta lortutako gainezkatze-indizeen balioak jasoko dira, kostako erabiltzaile bakoitzak (administrazioa, jabeak, portuak…) jakin dezan indize horiek zer erlazio daukaten beren intereseko kostaldeko eremuekin.

Gainera, esperientziak erakutsi digu inpaktua ez datorrela bakarrik olatuek ekarritako uholdeetatik, baizik eta batzuetan ur-proiekzioek eta ur zipriztinek ere eragin ditzaketela inpaktuak. Horregatik, nabigazio-alerta edo -alarma bat sortzen den bakoitzean, bereziki laugarren koadranteko haizea ere baldin badabil, abisu-hori bat sortuko da ur-proiekzioengatik eta -zipriztinengatik.

Azken urte hauetan kostaldeko uholdeen ondoriozko kalteak jasan ditugu, esklusiboki, marea oso bizien eraginez. Marea oso bizi horien balioa marea astronomikoaren eraginarekin ez ezik, beste hauen eraginarekin ere lotuta dago: marea meteorologikoa, hurbileko ibaietatik datorren ur-emaria edo in situ sor daitekeen euria bera. Horregatik, guztizko marea 5,00 m-tik gorakoa dela irizten denean, abisu hori bat emango da.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak kostaldearen gaineko eraginagatiko abisu orokorrak emango ditu, gutxi gorabeherako atalase hauen arabera:

Abisu horia	Alerta laranja	Alarma gorria
Gainezkatze-indizea: I > 5,8 m **Gehieneko gainezkatze-indizea: $I_{(max)}$ > 6,5 m**	**Gainezkatze-indizea: I > 6,5 m** **Gehieneko gainezkatze-indizea: $I_{(max)}$ > 7,0 m**	**Gainezkatze-indizea: I > 7,3 m** **Gehieneko gainezkatze-indizea: $I_{(max)}$ > 8,0 m**

Uholdeen kaltegarritasun-atalaseak

Uholdeak izateko aukera denean, hau da, ibaien mailak I. eranskinean zehaztutako mailetara iristen direnean edo maila horiek gainditzen dituztenean, prozedura hori aktibatuko da. I. eranskina egoki irizten den aldiro eguneratuko da, ur-emaria neurtzeko estazio bakoitzeko abisu-, alerta- eta, hala badagokio, alarma-mailekin, Uraren Euskal Agentziak erakunde eskudunekin eta Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzarekin batera egindako azterlanei jarraiki. Arro osorako aktibatuko da.

ZONAK	MAILA	EZAUGARRIAK
Arroen mailan	HORIA	**ABISU maila, I. eranskineko erreferentzia-mailetara iristean edo iritsiko direla aurreikustean.** **Ez dago kalterik. Maila horietan zaintza intentsiboaren prozesuari hasiera ematen zaio.**
	LARANJA	**ALERTA maila, I. eranskineko erreferentzia-mailetara iristean edo iritsiko direla aurreikustean.** **Gainezka egiten eta kalte txikiak sortzen hasten dira.**
	GORRIA	**ALARMA maila, I. eranskineko erreferentzia-mailetara iristean edo iritsiko direla aurreikustean.** **Urak gainezka egiten du eta kalte orokorrak.**

Kaltegarritasun-atalaseak baso-suteen arriskuagatik

Baso-suteen prebentzioko neurri arautzaileak foru aldundien eskumenekoak dira. Foru aldundi bakoitzak, bere lurralde historikoak izaten dituen arazoak kontuan hartuta, zehazten ditu mendian suteak egin daitezkeen egunak, sasoiak eta horretarako baimenak.

Dena den, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailari dagokio baso-suteen arriskuari buruzko abisuen sistema antolatzea eta ematea. Sistema hori ez da meteorologia kaltegarriaren gainerako abisuen sistema bezalakoa; izan ere, gertatzen diren sute gehienen atzean gizakien eskua egoten da eta, beraz, arriskua apartekoa izanda ere ez du esan nahi sute bat gertatuko denik.

Abisuak emateko aukeratu den sistemak ez dio nagusiki begiratu behar baso-suteak edo baso-suteen hasierak gertatzeko arriskuari, baizik eta baso-sute bat baso-sute handia bihurtzeko arriskuari edo une zehatz batean baso-suteen hasiera asko batera edo baso sute txikiak batera gertatzeko arriskuari eta horiek Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren lana zailtzeko arriskuari.

Euskadin, bereziki Foru Aldundien lanari esker, baso-suteen kopurua nabarmen murriztu da azken hamarkadetan; izan ere, nekazaritza eta abeltzaintza arloan mendiaren garbiketa sastrakei eta uztondoei

su emateareKin lotzen zuen antzinako ideia baztertzea lortu dute. Beraz, urteko baso-suteen kopurua eta, bereziki, urtean erretzen den azalera oso txikiak dira.

Baina horrek ez du esan nahi arrisku altuko egoerarik ez dugunik, nahiz eta horiek oso gutxi izan. Horrenbestez, estatistikoki arriskua txikia izaten denez, abisuen sistemak ez die gainerako abisuen filosofia berari jarraituko, non abisu horiak urtean askotan gertatzen diren, alerta laranjak batez beste urtean behin eta alarma gorriak batez beste urte batzuetan behin. Oro har, baso-suteekin lotutako abisuak gutxiago izango dira eta lotura estuagoa izango dute baso-suteen kontrolaren arriskugarritasunarekin, baso-suteen hasieren edo baso-suteen kopuruarekin baino. Edonola ere, azken urte hauetan ikusi dugu aldaketa klimatikoaren ondorioz muturreko tenperatura altuen eta tenperatura iraunkorren egoerak ugaritzen ari direla eta aurreikusten dugu horrek denborarekin arrisku mota hau handituko duela.

Semaforo-sistema honen esanahia hau da:

Egoera berdea: Sute batek baso-sute handi bat eragiteko arriskua zero edo ia zero da, hau da, sute bat gertatuko balitz, hori erraz kontrola lezakete suhiltzaileek edo foru aldundietako langileek. Semaforo honek ez du esan nahi baso-suterik sortuko edo hasiko ez denik, baina gertatuz gero, sute horren arrisku-maila ez litzateke oso handia izango.

Abisu horia: Egoera meteorologikoa, landarediaren egoera eta gainerako aldagaiak direla eta, baso-sute bat gertatzeko arriskua handia da. Sailkapen honen barruan sartzen dira, arrazoi kulturalak direla eta, baso-sute txiki asko gertatzeko arriskua handia denean. Egoera normalak dira eta urtean behin gertatzen dira. Egoera horretan mendian sute bat sortzen bada, baso-sute handi bat gerta liteke eta horregatik kosta ala kosta ekidin behar da. Horregatik, aktibatutako eskualdeetan erreketa kontrolatuak eta barbakoak debekatuta egon beharko lirateke, baina debeku horiek kasuan kasuko aldundiak atera behar ditu.

Alerta laranja: Sute batek baso-sute handi bat eragiteko arriskua oso handia da. Berariaz debekatu beharko litzateke mendian edozein su mota piztea, sute bat baso-sute handia bihurtzeko arriskua oso handia baita. Egoera hori batez beste zenbait urtetan behin gertatzen da.

Alarma gorria: Sute batek baso-sute handi bat eragiteko arriskua oso-oso altua da eta hori kontrolatzea ere oso-oso zaila izango litzateke edo agian ezinezkoa. Egoera hori batez beste urte askotan behin gertatzen da. Txinparta batek, sugar batek, ihes-hodi batek, pieza bero batek edo sute batek erraz eragin dezakete sute suntsitzaile bat. Gainera, horrelakoetan haizea oso handia izaten da eta haizeak berak eragiten du suteak landaredira heltzea, adarrak edo zuhaitzak linea elektrikoko zutoinetan jaustearen ondorioz, katenaria bereko kableen arteko talken ondorioz edo dorre elektrikoak jaustearen ondorioz. Zabortegiek ere aktiba ditzakete sugarrak eta ingurura zabaldu. Horrelakoetan, sutea piztea guztiz debekatuta egoteaz gain, Administrazio Publikoek (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak) jarduera zehatz batzuk ere debekatu ahal izango dituzte, esaterako, eremu zehatz batzuetatik zirkulatzea, uzta-makinek, fardo-makinek eta horrelakoek funtzionatzea, etab.

Izan ere, baso-sute handi bat gertatzeko landarediak geldialdi begetatiboan egon behar du edo asko jota estres hidriko handiarekin. Geldialdi begetatiboa ez da berdin gertatzen isurialde kantauriarrean edo mediterraneoan.

- Isurialde mediterraneoan, normalean baliabide hidrikorik ez egotearekin lotuta egoten da, hau da, udan eta udazkenaren hasieran. Aldi horretan landaredi belarkara hilda eta ihartuta dago eta gainerako landaredia geldialdi begetatiboan dago, hau da, barruan hezetasun gutxi dauka.
- Isurialde kantauriarrean, ordea, geldialdi begetatiboa neguan izaten da, eguzki-argi gutxi dagoenean eta tenperatura hotza denean. Baldintza horietan eta bereziki duela gutxi landare asko erre dituen izozte bat izan bada, hegoaldeko haizeak, jotzen hasitakoan, erregaiaren osagai fina ordu gutxitan erretzen du eta baso-suteak gertatzeko behar bezain ihartuta uzten du.

Hego-haizea behar bezain bizia bada, haize-ufadak ugariak izaten dira; eta horren ondorioz, haizeak oihanpean eta orbeletan sartzeko gaitasun handiagoa izango du. Beheranzko haizea denez, berotzen da eta hezetasun erlatibo nahiko baxua izaten du. Beraz, haize horrek tenperatura altuak ez ekarri arren, landaredia eta erregai finak lehortzeko gaitasun handia dauka. Euskadin neguan nagusiki hego haizea ibiltzen denez eta, gainera, sarritan nahiko bizia izaten denez, negua izan arren, eraginkortasunez eta azkar idortzen du.

Abisuak, alertak eta alarmak emateko orduan kontuan hartuko dira, batetik, aldagai meteorologiko klasikoak, esaterako, baso-suteen arriskua egunez egun eta orduz ordu; eta bestetik, beste aldagai desberdin asko, esaterako, nekazaritza-abeltzaintza arloko ohitura kulturalak, uzta biltzeko sasoiak, asteburuak, duela gutxi izozteak izan diren, hurrengo egunetarako iragarpenaren arrisku-maila…

ZONAK	MAILAK	EZAUGARRIAK
Zona klimatiko homogeneoak, eskualdeak edo Lurralde Historikoak.	HORIA	ABISU maila, baso-suteen arrisku-indizeak altuak direnean eta beste aldagai antropogeniko batzuk direla-eta hori egitea komeni denean
	LARANJA	ALERTA maila, baso-suteen arrisku-indizeak oso altuak direnean eta beste aldagai antropogeniko batzuk direla-eta hori egitea komeni denean
	GORRIA	ALARMA maila, baso-suteen arrisku-indizeak oso-oso altuak direnean eta beste aldagai antropogeniko batzuk direla-eta hori egitea komeni denean

3.- PROZEDURA OPERATIBOA

Prozedura honek Eusko Jaurlaritzaren jarduera erregulatzen du fenomeno meteorologiko kaltegarriak gertatzen direnean. Prozedura honek erregulatzen duenaren arabera, jardueren helburua da balizko kaltegarritasun-maila zehaztea eta esku hartu dezaketen gizarteko eta erakundeetako sektoreei edo, egokitzat jotzen bada, herritar guztiei –autobabeserako neurriak har ditzaten– jakinaraztea.

3.1.- Prozedura aktibatzea

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak aktibatuko du prozedura ondoko baldintza hauetakoren bat betetzen denean:

- Fenomeno bat protokolo honetako maila horirako ezarritako balioetara iritsiko dela aurreikusten denean.
- Berehalakoan gertatutako egoeretan, kaltegarritasun-atalaseren batera iristea aurreikusita ez badago, baina iritsi dela edo berehala irits litekeela jakiten bada. Kasu horretan, azkar igarotzen den fenomenoa baldin bada (ordu 1-2 baino gutxiago irauten badu), prozesua laburragoa izango da, batik bat Twitter-en bidezkoa; azkar igarotzen den fenomenoa ez bada, ordea (ordu 1-2 baino gehiago irauten badu), ohiko prozedurari jarraituko zaio.
- Fenomeno bat maila horiko atalaseetara iritsiko dela aurreikusi ez arren, egoera fisiko eta sozial bereziek gertakariren bat gerta daitekeela erakusten dutenean.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak prozedura aktibatzeko Euskalmetek arau zehatz batzuei jarraiki idatzitako jakinarazpena erabiliko du. Halaber, arau horiek erabiliko dira honako egoera hauekin lotutako jakinarazpenak idazteko:

- Fenomenoaren aurreikuspena edo amaiera.
- Informazioa eguneratzea, 12 orduan behin gutxi gorabehera.
- Aurreko jakinarazpena aldatzea eskatzen duten aldaketa nabarmenak aurreikusten badira.

Euskalmetek uste badu lehen jakinarazpenean maila laranjako edo gorriko abisua eman behar dela, Esku Hartzeko Zerbitzuaren arduradunarekin edo, halakorik egon ezean, guardiako teknikariarekin harremanetan jarriko da, SOS-Deiak Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren bidez, komunikatua argitaratu aurretik. Maila horietako bat aktibatuz gero, Esku Hartzeko Zerbitzuaren arduradunak edo, halakorik egon ezean, guardiako teknikariak prozedura honetako 3.2 puntuan jasotako jarraipen-fasea aktibatuko du.

3.1.1. Jakinarazpenak sortzeko arau bereziak

Jakinarazpenen informazioa erraz ulertzeko moduan adieraziko da, eta Euskalmeten estilo-liburuko arauak eta glosarioko terminoak errespetatuko ditu, ezarritako atalaseak gainditu direla aipatuko du, eta abisuaren kolorea zehaztuko (2.2 puntuan dago guztia jasota).

Arau orokor bezala, fenomeno kaltegarria iragartzeko jakinarazpena ohiko iragarpenekin batera argitaratuko da (12 orduan behin). Ahal bada, eguerdia baino lehen (10:00ak edo 11:00k inguruan) eta arratsaldean (19:00ak edo 20:00ak inguruan) emango da, eta normalean ez da eguneratuko hurrengo blokera arte. Kausa justifikaturen batengatik komenigarria izanez gero, beste ordu edo tarte batzuetan argitaratu ahal izango dira.

48 ordu baino gehiagoko aurrerapenarekin egindako jakinarazpenak tenperatura altu iraunkorren kasuan soilik emango dira, bai eta ezohiko egoeretan edo behar bezala justifikatutako arrazoiengatik ere.

Jakinarazpenak hiru bloketan banatuko dira: KAUSA(K), FENOMENO KALTEGARRIEN IRAGARPENA ETA IKUSITAKO FENOMENOAK.

Kausen blokean, kontuan hartu beharreko fenomenoak zehaztuko dira. Prozedura honen 2.1 puntuan definitutako fenomeno meteorologiko kaltegarrien kategoriekin eta horiei dagozkien atalaseekin bat etorriko dira.

Fenomeno kaltegarrien iragarpenaren blokean, prozedura aktibatuko duen aldagai bakoitza aurreikusitako mailari dagokion kolorearekin lotuko da, eta, ahal denean, aldagai bakoitza zer zonatan eta zenbat denboraz aktibatuko den adieraziko da. Kontuan izan komunikatu batek hainbat fenomenori buruzko informazioa jaso dezakeela, abisu-maila ezberdinekin, eta baliteke aldagai batek abisu-maila ezberdina izatea zonaren edo orduaren arabera. Adibidez, litekeena da haize bortitzen abisua 13:00etatik 17:00etara maila horiarekin aktibatzea, 17:00etatik 20:00etara maila laranjarekin, eta, ondoren, egoera normalizatzea espero izatea. Buletinetan fenomenoa zer ordutan hastea eta bukatzea espero den adieraziko da, horren ziurtasunik badago. Buletinean, gainera, aldagai bakoitza gertatzeko probabilitate-maila azalduko da.

Ikusitako fenomeno kaltegarrien blokean, horiei buruzko informazioa emango da, "bereziki" berehalakoan hasiko den fenomeno kaltegarri bat agertuko dela ziurtatzen denean (fenomenoa abisua eman aurretik hasi bada, buletinaren testua esaldi honekin hasiko da: «... detektatu ditugu, ikusi ditugu, erregistratu ditugu...») eta, aurreikusi arren, horren garrantzia dela eta, azaltzea komenigarritzat jotzen denean.

Hala ere, azkar igarotzen diren egoeretan, bereziki, ekaitz eta prezipitazio bortitzen kasuan, EZ bada espero iraupen luzea izango dutela, meteorologia kaltegarriaren abisurik ez da emango edo emandakoak ez dira aldatuko, balitekeelako abisu horiek prestatzeko eta bidaltzeko ordubete baino gehiago behar izatea. Kasu horietan, Twitter-eko @Euskalmet kontuaren bidez emango da aldaketen berri. Nolanahi ere, abisuak emateko (baldin badaude) sistema sinplifikatuko da, herritar guztiengana lehenbailehen iristearren.

Buletin guztiak ondoz ondoko zifrekin zenbakituko dira, eta zenbakikuntza urte hasieran abiaraziko da. Zenbakia goiburuan adieraziko da honela: XX/uuuu. XX buletinaren zenbakia izango da eta uuuu, aldiz, urtea.

Jakinarazpenen egitura hau izango da:

LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZA

EUSKO JAURLARITZAREN SEGURTASUN SAILA

FENOMENO METEOROLOGIKO KALTEGARRIEN ABISUA XX/uuuu

…….(e)ko .....ren …..(e)an, ...(e)(t)an (ordu lokala) sortua.

(Informazio hau .....(e)ko .....(e)(t)an eguneratuko da, lehenago egin behar ez bada)

KAUSA(K): (....)

FENOMENO KALTEGARRIEN IRAGARPENA:

(Testua)

IKUSITAKO FENOMENOAK:

(Testua)

==========:

Iragarpenaren buletin ofizialaren testu osoa (E, E+1, E+2, E+3).

Jakinarazpenak mezu elektroniko bidez bidaliko dira pdf formatuko bi fitxategitan: gazteleraz bata, euskaraz bestea.

3.2.- Abiarazte- eta jarraipen-fasea

Horitzat jotzen diren egoeretan, Euskalmet- Euskal Meteorologia Agentzia Sozietate Publikoak automatikoki abiaraz dezake. Hala ere, LAEMZekin eta beste erakunde batzuekin (URA, Trafikoa, Osasuna, Neguko Bidezaintza, foru aldundiak…) harremanetan egongo da espero den egoera meteorologikoari, izan litezkeen inpaktuei eta abarrei buruzko informazioa trukatzeko, baina ez da derrigorrezkoa. Dena den, egoera laranja edo gorria izatera pasa daitekeela uste bada, Euskalmetek derrigor egon beharko du horiekin harremanetan eta informazioa trukatu beharko du, abisua dagokion kolorearekin argitaratu aurretik adostu dadin, eta horrelako komunikazioetan gai hauek landuko dira:

- Maila horiari eutsi edo maila laranja edo gorria ezarri behar den.

- Hedabideei helarazi behar zaien eta, ondorioz, herritar guztiei.
- Erakundeei, enpresei eta herritarrei jakinarazi beharreko autobabeserako aholkuak eta jarraibideak, hala erabakitzen bada.

Gainera, jakinarazpen horiek berehala e-postaz bidaliko zaizkio SOS Deiak Larrialdiak Koordinatzeko Zentroari, baita erabiltzaile talde hautatu bati ere, informatuta egon daitezen. SOS-Deiakek informazio hori, lehenengo, esku-hartzeko guardiako teknikariari helaraziko dio. Teknikari horrek, Esku Hartze Zerbitzuko arduradunarekin behar bezala kontsultatu ondoren, ekitaldiaren hasierako jarraipen-fase baten koordinatzaile arituko da. Jarraipen-fase horretan hauek zehaztuko dira:

- Jarraipen Batzordea deitu behar den aztertu.
- Jakinarazpena erakunde eskudunei edota fenomenoaren eragina jaso dezaketen erakundeei eta gizarteko sektoreei helarazi, baita aurreikusitako fenomenoa gertatuz gero beharrezkoak izan daitezkeen larrialdi-zerbitzuei ere.

Erabaki horiek hartzeko, Esku Hartzeko Zerbitzua Segurtasun Saileko zerbitzu tekniko guztiekin eta Jaurlaritzako gainerako zerbitzuekin lankidetzan arituko da.

Euskalmetek eta Esku Hartze Zerbitzuak egiten dituzten ebaluazioa eta proposamenak jakinarazi behar zaizkie, zerbitzu horietako arduradunen bidez edo, horiek egon ezean, guardiako teknikariaren bidez, lehenik Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologia Zerbitzuaren zuzendariari edo, hori egon ezean, Babes Zibileko Sailburuordetzari. Horiek informazioa emateko modurik onena zein den erabakiko dute. Hain zuzen, maila laranja edo gorria jakinarazteko eta informazioa erakundeetara, komunikabideetara eta gizarteari, oro har, helarazteko erabakia hartzen bada, aldez aurretik horren berri izan beharko dute, salbu eta berehalakoan gertatutako kasuetan; eta horrelakoetan lehenbailehen jakinaraziko zaie.

Boletinak, adostuta daudela, Euskalmetetik EJIEra helduko dira eta “Abisuak nahieran” izeneko tresna batean sartuko dira; tresna horren funtzioa baita herritarrei, enpresei eta erakundeei eskatzen duten informazioa helaraztea.

3.3.- Aurreikusitako fenomeno kaltegarriaren maila zehaztea

Adierazi dugun bezala, abisu horia maila horretarako ezarritako atalaseak iragartzen edo ikusten direnean ematen da. Gainerako kasuetan (alerta laranja eta alarma gorria), atalaseak orientagarriagoak dira, ez hain erabakigarriak. Izan ere, aintzat hartu behar da fenomeno meteorologiko kaltegarri batek duen kaltegarritasunaz eta arriskuez hitz egiten ari garela. Horrenbestez, kontuan hartu beharreko aldagaiak ez daude meteorologiarekin soilik lotuta. Kasu askotan, gizarteko, urtaroko edo ingurumeneko faktoreek meteorologiakoek baino garrantzi handiagoa izan dezakete. Edonola ere, prozedura honetan zehaztutako atalaseak azken urteetan fenomeno meteorologikoen gainean lortutako esperientzia erabiliz zehaztu dira; beraz, erreferentzia egokiak dira mailak ezartzeko. II. eranskinean, kolorearen maila zehazteko kontuan hartu beharreko zenbait irizpide eta aldagai azaldu dira.

3.4.- Jarraipen-batzordeak

Egoeraren arabera, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak aurreikusitako edo ikusitako fenomeno meteorologikoaren jarraipen-batzordeak deituko ditu, beharra dagoela iritziz gero.

Jarraipen-batzordearen helburua Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari edo, Planen bat aktibatuz gero, plan horren Zuzendaritzari gauzatu beharreko jarduerei eta hartu beharreko neurriei buruzko aholkuak ematea da. Batzordean parte hartzen duten erakundeek beren eskumenekoak diren neurri guztiak hartu beharko dituzte.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak jarraipen-batzordeko koordinatzailea izendatuko du. Printzipioz, Esku Hartzeko Zerbitzuko arduraduna izango da eta, bestela, jarraipenaren hasierako fasea koordinatu duen guardiako teknikaria. Gertaerak zer baldintzatan eta egoeratan izaten diren kontuan hartuta, baliteke batzuetan batzordearen saioak aurrez aurrekoak edo bideokonferentzia bidezkoak izan ezin izatea; beraz, telefonoz egin daitezke.

Jarraipen-batzordearen lanetako bat zera da, egoeraren arabera, gertaera kudeatzeko beharrezkoak diren planak eta programak aktibatzeko proposatzea erakunde eskudunari. (Babes Zibileko planak, Neguko Bidezaintza Plana, Tenperatura altuen egoeretarako prozedura operatiboa, presen protokoloak, Zadorrako Mahaia...) (III. eranskina). Babes Zibileko planik aktibatuz gero, jarraipen-batzorde hau plan horren operatibitatearen parte izango da.

3.4.1. Jarraipen-batzordeen osaera

Jarraipen-batzordeen osaera fenomeno kaltegarrien araberakoa izango da, fenomenoarekin lotura duten erakundeek osatuko baitute. Dokumentu honetan gutxieneko partaideak zehazten dira, baina, kasu zehatzetan eta egoera berezien arabera, batzordearen koordinatzaileak gertaeraren kudeaketarekin lotutako beste erakunde batzuei parte hartzeko eskatu ahal izango die. Batzorde guztietan, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzako komunikazioko aholkulariak parte hartuko du.

Fenomeno meteorologikoa:

Euria eta uholdeak

- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza
- Uraren Euskal Agentzia, URA
- Foru aldundietako hidrologiaren alorreko zuzendaritza eskudunak
- Euskalmet

Elurteak, Izozteak eta Muturreko tenperatura baxuak

- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza
- Trafiko Zuzendaritza
- Foru aldundietako errepideetako zuzendaritzak
- Euskalmet

Tenperatura altuak

- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza
- Osasun Publikoko Zuzendaritza
- Osakidetza
- Euskalmet

Haizeak

- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza
- Euskalmet

Itsasoko-kostako arriskua – Inpaktua kostaldean

- Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza.
- Gobernuaren Ordezkaritza (SASEMAR)
- Arrantza Zuzendaritza
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza
- Uraren Euskal Agentzia, URA
- AZTI
- Euskalmet

3.5.- Abisu-maila ezberdinetan jardutea

Aurretik azaldu den bezala, fenomeno meteorologiko kaltegarri baten iragarpenarekin batera izaten diren egoerek hari esleituko diogun arriskugarritasuna aldaraz dezakete. Era berean, egoera horiek meteorologiako zerbitzuaren eta larrialdi-zerbitzuen jarduteko jarraibideak aldaraz ditzakete. Epigrafe honetan jasotako informazioak jarduteko jarraibide orokorrak ezarri nahi ditu. Dena den, gertaeraren egoera zehatzaren arabera egokitu egin beharko dira.

3.5.1. Maila horia

- "Abisuak nahieran" tresnaren bidez edo SOS-Deiak Koordinazio Zentroaren bidez, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren jakinarazpena bidaliko zaie IV. eranskinean azaltzen diren gizarteko sektoreei eta zerbitzuei.
- Euskalmeten web orriaren eta Twitter (@Euskalmet eta @112_SOSDeiak) bidez emango da abisua (*).
- Hedabideen bidez herritar guztiei jakinarazpena zabaltzeko aukera aztertuko da.
- Jarduteko jarraibideak eta autobabeserako arauak emateko aukera aztertuko da.
- Plan edo programa zehatzak (uholdeena, presena, neguko bidezaintzarena eta abar.) aktibatzeko aukera balioetsiko da (III. eranskina).
- Bilakaera txar batek edo ezusteko batek izan ditzakeen eraginak aztertuko dira.
- Maila altuago bat ezartzeko aukera aztertuko da.
- Egoera osoa aztertuko da, meteorologia fenomeno kaltegarria amaitutzat jotzeko.

3.5.2. Maila laranja

- "Abisuak nahieran" tresnaren bidez edo SOS-Deiak Koordinazio Zentroaren bidez, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren jakinarazpena bidaliko zaie IV. eranskinean azaltzen diren gizarteko sektoreei eta zerbitzuei.
- Euskalmeten web orriaren eta Twitter (@Euskalmet y @112_SOSDeiak) bidez emango da abisua (*) .
- Herritarrei, enpresei eta udalei jarduteko jarraibideak eta autobabeserako aholkuak helaraziko zaizkie.
- Herritar guztiei egoeraren berri emango zaie hedabideen bidez (prentsa-oharra).
- Saileko prentsa-zerbitzuekin batera, hedabideetan zuzenean agertzeko aukera ebaluatuko da.
- Egoerak izan ditzakeen eraginak aztertuko dira.
- Egoerak txarrera eginez gero, beharrezkoak izan daitezkeen protokoloak, komunikazio-sistemak eta informazio-iturriak berrikusiko dira.

- Fenomenoaren eragina zuzenean jasotzen duten gizarteko sektoreek eta erakundeek alerta jaso dutela egiaztatuko da.
- Egoeraren bilakaeraren arabera, beharrezkoak izan daitezkeen larrialdi-zerbitzuek alerta jaso dutela egiaztatuko da.
- Lotutako beste protokolo batzuk aktibatu diren egiaztatuko da (neguko bidezaintza-plana, tenperatura altu iraunkorren egoeretarako prozedura operatiboa, muturreko tenperatura altuen egoeretarako prozedura operatiboa…*).*
- Programa eta protokolo zehatzen (presak, neguko bidezaintza, tenperatura altuak eta abar) aktibazioa proposatzea egokia den aztertuko da (III. eranskina)
- Babes Zibileko Udal larrialdi-planen eta larrialdi-plan autonomikoen aktibazioa proposatzea egokia den aztertuko da.
- Maila altuago bat (gorria) ezartzeko aukera aztertuko da.
- Egoera osoa balioetsiko da, fenomeno meteorologiko kaltegarria amaitutzat jotzeko edo arrisku-maila horira jaisteko.

3.5.3. Maila gorria

- SOS-Deiak Koordinazio Zentroaren bidez, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren jakinarazpena bidaliko zaie IV. eranskinean azaltzen diren gizarteko sektoreei eta zerbitzuei.
- Euskalmeten web orriaren eta Twitter (@Euskalmet y @112_SOSDeiak) bidez emango da abisua (*).
- -SOS-Deiak Koordinazio Zentroaren bidez, abisatzeko SMS bat bidaliko zaie IV. eranskinean azaltzen diren gizarteko sektoreei eta zerbitzuei.
- Herritarrei, enpresei eta udalei jarduteko jarraibideak eta autobabeserako aholkuak eta debeku zehatzak helaraziko zaizkie.
- Herritar guztiei egoeraren berri emango zaie hedabideen bidez (prentsa-oharra).
- Saileko prentsa-zerbitzuekin batera, hedabideetan zuzenean agertzeko aukera ebaluatuko da.
- Sare sozialetako informazioa aztertzea, informazio faltsua, gezurrak edo fake-ak zirkulatzen ari diren begiratuko da eta faltsuak direnak publikoki jakinaraztea.
- Egoerak izan ditzakeen eraginak aztertuko dira.
- Egoerak txarrera eginez gero, beharrezkoak izan daitezkeen protokoloak, komunikazio-sistemak eta informazio-iturriak berrikusiko dira.
- Fenomenoaren eragina zuzenean jasotzen duten gizarteko sektoreek eta erakundeek alerta jaso dutela egiaztatuko da.

- Egoeraren bilakaeraren arabera, beharrezkoak izan daitezkeen larrialdi-zerbitzuek alerta jaso dutela egiaztatuko da.
- Lotutako beste protokolo batzuk aktibatu diren egiaztatuko da.
- Programa eta protokolo zehatzen (uholdeak, presak, neguko bidezaintza, tenperatura altuak eta abar.) aktibazioa proposatzea egokia den aztertuko da (III. eranskina)
- Larrialdi planaren dagokion fasea aktibatuko da.
- Babes Zibileko Udal larrialdi-planen edo Foru larrialdi-planen aktibazioa proposatzea.
- Egoera osoa balioztatuko da, meteorologia fenomeno kaltegarria amaitutzat jotzeko edo arrisku-maila laranjara edo horira jaisteko.

  (*) oharra: baliteke zenbait gertaeren dinamikaren edo hedapenaren arabera –adibidez, uholdeen kasuan–, jarraipena Twitter bidez soilik egin ahal izatea eta jarraipen hori oso zehatza ez izatea. Dena den, kanal horren bidez ahalik eta informazio handiena emango da, ahal den heinean.

3.6. Ohiz kanpoko inpaktua izango duten fenomeno meteorologiko kaltegarriak iragartzeko, zaintzeko eta horien aurrean jarduteko Prozeduraren operatibitatea

Gertatu baino 24 ordutik 48 ordura bitarteko aurrerapenarekin iragartzen bada aurreikusten dela prozedura honen xede diren fenomeno meteorologikoetako baterako ezarritako atalase gorria gaindituko dela edo laranjara helduko dela gorrira ere heltzeko posibilitatearekin, eta ondorio oso larriak edo suntsitzaileak izan ditzakeela, jarduera hauek burutuko dira (baita prozedura honen 3.5 puntuan “Abisu maila desberdinetan jardutea” ezarritako jarduerak ere):

Euskalmetek uste badu lehen jakinarazpenean maila gorriko abisu bat sartu behar dela edo maila gorrira hel daitekeelako abisua; Euskalmet, jakinarazpena atera aurretik, Esku Hartze Zerbitzuko arduradunarekin harremanetan jarriko da edo, hori egon ezean, guardiako teknikariarekin. Esku Hartze Zerbitzuko arduradunak edo, hori egon ezean, guardiako teknikariak prozedura honen 3.2 puntuan jasotako jarraipen-fasea aktibatuko du eta puntu horretan ezarritako jarduerak egingo ditu.

- Dagokion taktika operatiboa irekiko da: METEO Fenomeno meteorologiko kaltegarriei buruzko informazioa, BASOA Baso-suteen arriskuari buruzko informazioa.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak aurreikusten den fenomeno meteorologikoaren jarraipen-batzordea deituko du eta batzorde horretan egoera aztertuko da. Prezipitazio iraunkorren kasuan, Euskalmetek aurretik URA Uraren Euskal Agentziarekin informazioa trukatuko zuen balioesteko prezipitazio horien ondoriozko emari/maila zein izan daitekeen, URAk egindako modelizazio hidrologikoaren arabera.

- Aztertuko da ea komeni den prebentzio moduan herritar guztiei egoeraren berri ematea, hedabideek zabalduko duten prentsa-ohar berezi baten bidez.

- Aztertuko da ea komeni den kasuan kasuko larrialdi-planaren aholku-batzordea deitzea.

- Alerta laranja edo alarma gorria aktibatu aurretik, kasuan kasuko larrialdi-planaren aholku-batzordea deituko da eta batzorde horretan erabakiko dira planaren zein larrialdi-fase deklaratu eta plan horren zein egoeratan. Eta hauek ere bai:

* Jarduteko gomendioak aurkeztea eta etorkizunean izan daitezkeen murrizketak planteatzea.

* Hedabideen bitartez egoeraren berri ematea, prentsa-oharra.

* Larrialdi fasean dagoen kasuan kasuko larrialdi-planaren aholku-batzordearen hurrengo bilera-eguna zehaztuko da. Bilera hori egingo da prezipitazio-modeloek eta modelo hidrologikoek aurreikusten duten larrialdiaren hasiera-ordua baino ordu batzuk lehenago.

* Bilera horretan erabaki beharko da herritarrei alertatzeko mezuak bidaltzea, telefonia mugikorreko sareen eta ES-Alert-en bidez.

* Lehen ondorioak gertatu baino 24 ordutik 48 ordura bitarteko aldian egin beharreko jarduera inportanteenak izango dira iragarpen meteorologikoa, ekitaldiaren jarraipena, inplikatutako agente eskudunen arteko koordinazioa, gizarte sektoreei eta erakundeei jakinaraztea, herritarrei autobabeserako gomendioak zabaltzea eta egoera larriagoetarako murrizketak zehaztea.

* Alarma gorria eman eta meteorologia kaltegarriko fenomenoa hasi ondoren, fenomeno meteorologiko kaltegarriak kudeatzeko taktika operatiboak edo presen gertakariak kudeatzekoak aktibatuta egongo dira, gertakariak sortzen duen egoerarako egokiak direnak.

* Taktika horiek kasuan kasuko larrialdi-planean integratuko dira. Halaber, larrialdia kasuan kasuko larrialdi-planaren esparruan kudeatuko da.

3.7. Jakinarazpenak zabaltzea

Fenomeno kaltegarriei buruzko jakinarazpenak posta elektronikoz bidaliko dira nagusiki (zuzenean Euskalmetetik / “Abisuak nahieran” aplikaziotik / Sos Deiaketik) eta bide horiek erabili ezin izango balira , beste kanal batzuk erabiliko lirateke (faxa, telefonoa…) horiekin harremanetan jartzeko. Hala ere, abisu guztiak Eusko Jaurlaritzaren webgunean argitaratuko dira, honako helbide honetan: www.euskalmet.euskadi.eus .

LAEMZek ezin baditu abisuak egin prozedura normala (dokumentu honetan deskribatutakoa) erabiliz, berehalakoak direlako edo etengabe aldatzen direlako, berehala jakinaraziko dio telefonoz edota irrati bidez SOS Deiak Larrialdiak Koordinatzeko Zentroari. Egoera horietarako, informazioa helarazteko bide ofiziala Twitter-eko kontuak izango dira (@Euskalmet eta @112_SOSDeiak).

Edozein erakundek, enpresak edo pertsonak jaso ditzake abisu hauek, www.euskadi.eus -eko SOSDeiak Webgunean “abisuak nahieran” sisteman izena emanda. Hortaz, interesa daukaten erabiltzaileek sistema horretan izena eman behar dute, bereziki IV. eranskineko arloetan titular-aldaketak gertatzen direnean.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaz bestelako erakundeek meteorologia kaltegarriko abisuak zabaltzeko eta zabalkunde horretan ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko, hartzaileek buletinetan jasotakoak zabaldu ahal izango dituzte, honako hauek aintzat hartuta:

- Informazio meteorologikoaren iturria Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila dela aipatu beharko da.
- Testu osoa transkribatuko da.
- Informazioa eguneratu beharko da.

4.- PROTOKOLOA BERRIKUSTEA

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak, SOS DEIAK Larrialdiak Koordinatzeko Zentroen bitartez, gertaeren jarduketa irekiko du maila laranja edo gorriko egoera meteorologiko berri larri bat hasten den bakoitzean; edo maila horiko egoeretan ere bai, gertaera garrantzitsuak eragin baditu.

Prozedura hau urtero berrikusiko da eta Euskadiko Babes Zibilerako Batzordera helaraziko da, horren berri izan dezan.

Bestalde, zenbait fenomeno kaltegarriren sasoi ohikoenak hasi aurretik, fenomeno horiekin lotura zuzenagoa duten Fenomeno Meteorologiko Kaltegarriak Iragartzeko eta Zaintzeko Prozeduraren zatiak berrikusi ahal izango dira.

Prozedura hau Eusko Jaurlaritzaren web orrian argitaratuko da, onartu ondoren.

I. ERANSKINA – UR EMARIA NEURTZEKO ESTAZIOEN ETA UHOLDE ARRISKU HANDIKO EREMUEN MAILAK UHOLDEEN AURREAN

URA- URAREN EUSKAL AGENTZIA MAILA HORIEK ETENGABE EGOKITZEN ARI DA, LAEMZEKIN ETA BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN BATERA, UHOLDE ARRISKUEN EBALUAZIOARI ETA KUDEAKETARI BURUZKO 2007/60/EE ZUZENTARAUARI (ESTATUKO ORDENAMENDU JURIDIKORA UZTAILAREN 9KO 903/2010 ERREGE DEKRETUAREN BIDEZ EKARRI ZENA) JARRAIKI.

Kontrolatu beharreko fenomenoaren izaera aintzat harturik, honako arrisku-maila hauek ezartzea proposatzen da, abisuen, alerten eta alarmen atalaseak zehazteko:

Abisu horia: Normaltasun-egoera. Arrisku txikia aurreikusi da. Kontrol-sekzioaren maila bat dator, gutxi gorabehera, ibaiak gainezka egiteko behar duen emariaren % 80rekin. Era berean, balioetsitako guztizko marea 5,00m-tik gorakoa denean, abisu horia emango da kostaldearen gaineko inpaktuaren abisu moduan, existitzen diren inpaktu-indizeak edozein izanda ere.

Alerta laranja: Ezohiko egoera. Kontrol-sekzioaren maila bat dator ur-lamina igo eta lehen kalteak (lehen errepidea moztu edo lehen eraikina urez bete) eragiten dituen emariarekin.

Alarma gorria: Muturreko egoera. Kontrol-sekzioaren maila bat dator uholde larria eragiten duen emariarekin.

Maila horiek etengabe aztertu eta eguneratzen dira, eta larrialdietarako sarbide mugatuko aplikazioaren bidez egin daiteke horien jarraipena, uholdeen zainketa atalean:

www.euskalmet.euskadi.net/meteoadversa/portada.html

Halaber, Euskalmeten webguneko uholdeen zainketa egiteko sekzioan ere aurki daiteke:

https://www.euskalmet.euskadi.eus/behaketa/uholdeen-zainketa/

Jarraian, 2025ko abenduaren 16an mailak nola zeuden azalduko dugu:

ARROA	IBAIA	UR EMARIA NEURTZEKO ESTAZIOA	UDALERRIA	MAILA horia (m)	MAILA laranja (m)	MAILA gorria (m)
ZADORRA	STA ENGRATZIA	**OTXANDIO (C054)**	OTXANDIO	2,70	3,10	3,30
	BARRUNDIA	**OZAETA (C055)**	BARRUNDIA	1,35	1,85	
	ZADORRA	**ETURA (C0AA)**	BARRUNDIA	2,45	2,75	
	ALEGRIA	**ALEGRIA (C056)**	ALEGRIA-DULANTZI	1,80	2,10	2,40
	ZADORRA	**ABETXUKO (C076)**	VITORIA-GASTEIZ	2,00	2,50	3,00
	ZADORRA	**ABETXUKO CHE (C010)**	VITORIA-GASTEIZ	3,80	4,30	4,80
	ZADORRA	**NANCLARES (C0AB)**	LANGRAIZ OKA	3,00	3,50	5,00
BAIA	BAIA	**SARRIA (C0A0)**	ZUIA	1,20	1,50	2.00
BARBADUN	BARBADUN	**ARENAO C0C5**	GALDAMES	2,50		
KADAGUA	KADAGUA	**BALMASEDA (C0C2)**	BALMASEDA	1,90	2,50	2,90
	KADAGUA	**ARANGUREN (C0C1)**	ZALLA	3,10	3,50	4,30
	KADAGUA	**ZALLA (C0C0)**	ZALLA	1,50	2,00	2,50
	HERRERIAS	**SODUPE-HERRERIAS (C0C4)**	GUEÑES	2,25	2,60	3,00
	IBAIZABAL	**ELORRIO (C074)**	ELORRIO	1,50	1,80	
IBAIZABAL	MAÑARIA	**MAÑARIA (C0B7)**	IZURTZA	1,30	1,50	
	IBAIZABAL	**AMOREBIETA (C079)**	AMOREBIETA	3,20	3,80	4,50
	IBAIZABAL	**GALDAKAO (C009)**	GALDAKAO	5,50	7,00	8,00
	ARRATIA	**URKIZU (C0B3)**	IGORRE	2,80	3,40	4,00
	ARRATIA	**ZEANURI (C008)**	ZEANURI	2,75	3,00	3,25
	ALTUBE	**OROZKO (C0B4)**	OROZKO	2,10	2,40	
	ALTUBE	**ARETA (C032)**	LAUDIO	1,50	2,00	
NERBIOI	NERBIOI	**SARATXO (C051)**	AMURRIO	1,75	1,95	
	NERBIOI	**GARDEA (C067)**	LAUDIO	1,80	2,05	
	NERBIOI	**ZARATAMO (C0B2)**	ZARATAMO	5,20	6,00	6,50
	NERBIOI - IBAIZABAL	**ABUSU (C0B1)**	ARRIGORRIAGA	4,00	4,60	5,00

	NERBIOI - IBAIZABAL	**LA MERCED (C0B0)**	BILBAO	4,00	4,30	4,50
RIA BILBAO	NERBIOI – IBAIZABAL	**ZORROTZA (C03A)**	BILBAO	2,70	2,90	3,50
	NERBIOI – IBAIZABAL	**MAREOGRAFO ERANDIO (M09B)**	ERANDIO	2,60	2,80	
	ASUA	**SANGRONIZ (C0B9)**	SONDIKA	2,50	3,00	3,50
	GOBELA	**LARRAÑAZUBI (C0B8)**	GETXO	1,70	2,45	
	BUTROE	**MUNGIA-LAUAXETA (C011)**	MUNGIA	5,25	6,10	7,00
	BUTROE	**MUNGIA (C057)**	MUNGIA	5,25	6,00	6,6
BUTROE	BUTROE	**GATIKA (C005)**	GATIKA	4,50	5,25	5,60
	ESTEPONA	**BAKIO (C004)**	BAKIO	1,50	2,00	
	OKA	**MUXIKA (C063)**	MUXIKA	2,50	3,00	
OKA	LEA	**OLETA (C0BA)**	AMOROTO	2,40	3,00	
LEA						

ARROA	IBAIA	UR EMARIA NEURTZEKO ESTAZIOA	UDALERRIA	MAILA horia (m)	MAILA laranja (m)	MAILA gorria (m)
ARTIBAI	ARTIBAI	**IRUZUBIETA (C0BD)**	ZIORTZA-BOLIBAR	1,95	2,55	
	ARTIBAI	**BERRIATUA (C0BE)**	BERRIATUA	2,00	2,50	
	URKO	**MARKINA (C006)**	MARKINA	2,50	3,00	3,40
BIDASOA	BIDASOA	**BEHOBIA (C084)**	IRUN	5,60	5,85	
	JAIZUBIA	**JAIZUBIA (C083)**	IRUN	1,60	1,90	2,50
OIARTZUN	OIARTZUN	**OIARTZUN (C0F4)**	ERRENTERIA	1,40	1,70	2,20
URUMEA	URUMEA	**AÑARBE (C080)**	OIARTZUN	1,20	1,50	
	URUMEA	**EREÑOZU (C0F0)**	HERNANI	2,00	2,80	
	URUMEA	**MARTUTENE (C081)**	DONOSTIA	3,80	4,50	
	URUMEA	**TXOMIN ENEA (C082)**	DONOSTIA	3,30	3,65	3,80
ORIA	ESTANDA	**ESTANDA (C0E7)**	BEASAIN	1,40	1,75	2,10
	AGAUNTZA	**AGAUNTZA (C0E5)**	LAZKAO	1,30	1,60	1,90
	AMUNDARAIN	**AMUNDARAIN (C0E1)**	ZALDIBIA	1,20	1,70	2,10
	ORIA	**ALEGIA (C0E9)**	ALEGIA	2,50	3,00	3,50
	ARAXES	**ARAXES (C0E8)**	LIZARTZA	1,50	2,00	
	ZELAI	**BELAUNTZA (C0EA)**	BELAUNTZA	0,90	1,10	1,30
	LEITZARAN	**ANDOAIN (C077)**	ANDOAIN	1,80	2,00	2,30
	LEITZARAN	**AMERAUN (C052)**	BERASTEGI	2,00	2,75	3,25
	ORIA	**LASARTE (C0EC)**	LASARTE-ORIA	3,00	3,80	4,50
UROLA	UROLA	**AITZU (C0DB)**	ZUMARRAGA	1,20	1,60	
	IBAI-EDER	**MATXINBENTA (C0DE)**	BEASAIN	0,60	0,80	
	IBAI-EDER	**IBAI EDER (C0DC)**	AZPEITIA	0,90	1,20	1,50
	UROLA	**AIZARNAZABAL (C0DD)**	ZESTOA	1,80	2,50	3,00
DEBA	URKULU	**URKULU (C0D0)**	ARETXABALETA	0,70	0,80	
	OÑATI	**OÑATI (C0D1)**	OÑATI	2,00	2,40	2,80
	EGO	**EIBAR (C085)**	EIBAR	2,00	2,50	

	DEBA	**SAN PRUDENTZIO (C0D2)**	BERGARA	1,50	1,90	2,30
	AIXOLA	**AIXOLA (C0D3)**	ELORRIO	0,50	0,60	
	DEBA	**ALTZOLA (C078)**	ELGOIBAR	3,25	3,75	4,50

II. ERANSKINA – ABISUEN MAILA ZEHAZTEKO AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDAGAIAK ETA IRIZPIDEAK

Euriteen kasuetan:

- Lurraren hezetasuna.
- Ibaien egoera (oraingo maila eta aurretik iritsi diren maila).
- Ibaien maila igotzeko abiadura.
- Urtegien maila.
- Prezipitazioaren zonifikazioa.
- Euri mota (iraunkortasuna eta intentsitatea).
- Landarediaren egoera eta urtaroa.
- Estimatutako lurruntze-transpirazioa.
- Gertaera garrantzitsuak eragina jasan dezaketen eremuetan.
- URA – Uraren Euskal Agentziarekin elkarrizketak/informazio-trukeak.

Elurteen kasuetan:

- Elurra zein ordutan espero den.
- Espero den zirkulazioa.
- Ondoren izozteak izango diren ala ez.
- Prezipitazio mota. Etengabeak edo aldizkakoak.
- Txingorra egingo duen ala ez.
- Elur-prezipitazioa zein tenperaturatan espero den.
- Elurra lur bustian ala lehorrean eroriko den.
- Prezipitazioari lotutako haizea. Elurtegiak sortuko diren.
- Trafiko Zuzendaritzarekin eta foru aldundietako errepideen arloko zuzendaritzekin elkarrizketak.

Haizeteen kasuetan:

- Haizea zein ordutan espero den.
- Haizearen eragina jasan dezaketen eremuak.
- Aldaketaren bat-batekotasuna.
- Horiekin batera beste fenomeno kaltegarri batzuk gertatuko diren.
- Gertaera garrantzitsuak eragina jasan dezaketen eremuetan.

Tenperatura negatiboen kasuetan:

- Errepidean izotz zuria sortzeko aukera.
- Izotz beltza sortzeko aukera.
- Eragindako eremuak.
- Balioetsitako sentsazio termikoa (tenperatura eta haizea).
- Gertaeraren iraupena.
- Zirkulazioari lotutako arazoak.
- Trafiko Zuzendaritzarekin eta foru aldundietako errepideen arloko zuzendaritzekin elkarrizketak.

Tenperatura altuen kasuetan:

- Espero den sentsazio termikoa (tenperaturak, haizeak eta hezetasun erlatiboak).
- Fenomenoa iragartzeko erraztasuna. Iragarpenen dispertsioa.
- Udako sasoia (udaren hasiera edo amaiera).
- Aurreko egunetako tenperaturak.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren gomendioak eta harekin elkarrizketak.

Nabigazio kasuetan (Itsasokoa-kostaldekoa):

- Urteko sasoia (uda den ala ez).
- Asteburua edo jaieguna den.
- Olatu motak (hondoko itsasoa, haize-itsasoa, itsaso nahasia, kaotikoa…).
- Olatuen ezaugarriak (altuera adierazgarria, gailurraren altuera, aldiak...).
- Haizea.
- Antolatutako kirol-jarduerak.

Enbaten edo horien antzekoen kasuan (itsasokoa-kostaldekoa):

- Enbata zen ordutan hastea espero den.
- Asteburua edo jaieguna den.
- Udako sasoia (kostaldean zenbat erabiltzaile espero diren).
- Kirol-jarduerak.

Kostaldearen gaineko inpaktu kasuetan (itsasokoa-kostaldekoa):

- Olatuekin lotutako aldagaiak; altuera adierazgarria, aldiak eta gailurraren altuera, norabidea eta ordutegia.
- Marearekin lotutako aldagaiak; astronomikoa, meteorologikoa, espero diren emariak eta prezipitazioak eta zein ordutan.
- Gainezkatzearekin lotutako aldagaiak.
- Duela gutxiko denboraletan sortutako kalteak.

Baso-suteen arrisku-kasuetan:

- Baso-suteen arriskuarekin lotutako indizeak eta azpiindizeak, egunez egunekoak zein orduz ordukoak.
- Aldagai meteorologikoak, iraganekoak zein aurreikusten direnak.
- Landarediaren eta lurraren egoera.
- Kulturarekin lotutako lanak, uzta-sasoia…
- Urteko sasoia, asteburua, jaiak…
- Foru aldundietako teknikarien eta suhiltzaileen gomendioak eta haiekin elkarrizketak.

III. ERANSKINA – PLANEN, PROGRAMEN ETA PROZEDUREN ZERRENDA

- Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea-LABI» Euskadiko Babes Zibileko Plana (EHAA 138, 1997ko uztailaren 21ekoa).
- «Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea - LABI» deritzan Euskadiko Herri Babeseko Planaren berrazterketa berezia, urtarrilaren 13ko 1/2015 Dekretua (EHAA 14, 2015eko urtarrilaren 22koa).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Uholde Arriskuari aurre egiteko Larrialdi Plan Berezia, Gobernu Kontseiluak 2015/10/13ko bileran onartutakoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Baso-suteetarako Larrialdi Plan Berezia (EHAA 55, 1998ko martxoaren 23koa).
- Zadorrako Urtegietan Ur Altuen Egoeretan Jarduteko prozedura.
- Neguko Bidezaintza Plana.
- Tenperatura altu iraunkorren eta muturreko tenperatura altuen egoeretan jarduteko prozedura operatiboa.
- Herrizaingo sailburuaren Agindua, 2007ko martxoaren 20koa, Larrialdiei Aurregiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak aldatzen dituena.

IV. ERANSKINA – JAKINARAZPENAK JASOKO DITUZTEN ERAKUNDEEN ETA ZERBITZUEN GUTXIENEKO ZERRENDA (*)

(*) Datu-basean, gutxienez, hemen zerrendatutako erakundeak eta zerbitzuak daude. Dena den, beste erakunde, enpresa edo partikular batzuk gehitu ahal izango dira, gertaerak haiei ere eragiten badie. Datu-baseak informazio dinamikoa daukalako ez da atal honetan zehatz deskribatzen. Horrenbestez, zerrenda orientagarria da.

Euriteen jakinarazpena:

- Ertzaintzaren Agintaritza eta Kontrol Zentroa (Ardatz)
- Osakidetzako larrialdiak
- Foru aldundietako Salbamendu eta Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzuak.
- Gobernuaren Ordezkariordetza
- Udalen eta Aiarako Partzuergoko Salbamendu eta Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzua.
- Foru-aldundietako hidrologia-arloak.
- Bilboko, Donostiako eta Gasteizko udalak.
- Foru-aldundietako mendi-zerbitzuak
- Trafikoa Kudeatzeko Zentroa. Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritza.
- Foru-aldundietako herri-lan, garraio eta errepide zerbitzuak.
- Gurutze Gorria / DYA.
- Euskotren / FEVE / RENFE /ADIF/ Metro Bilbao.
- Eusko Jaurlaritzaren eta Lurralde Ordezkaritzen uraren zuzendaritzak.
- URA
- EAEko udalak.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa / AMVISA / Añarbeko Urak.
- Autobideak.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua.

Elurteen jakinarazpena:

- Ertzaintzaren Agintaritza eta Kontrol Zentroa (Ardatz)
- Osakidetzako larrialdiak
- Foru aldundietako Salbamendu eta Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzuak.
- Gobernuaren Ordezkariordetza
- Udalen eta Aiarako Partzuergoko Salbamendu eta Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzua.
- Bilboko, Donostiako eta Gasteizko udalak.
- Foru-aldundietako mendi-zerbitzuak
- Trafikoa Kudeatzeko Zentroa. Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritza.
- Foru-aldundietako herri-lan, garraio eta errepide zerbitzuak.
- Gurutze Gorria / DYA.
- Euskotren / FEVE / RENFE /ADIF/ Metro Bilbao.
- EAEko udalak.
- Autobideak.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua.

Haizeteen jakinarazpena:

- Ertzaintzaren Agintaritza eta Kontrol Zentroa (Ardatz)
- Osakidetzako larrialdiak
- Foru aldundietako Salbamendu eta Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzuak.
- Gobernuaren Ordezkariordetza
- Udalen eta Aiarako Partzuergoko Salbamendu eta Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzua.
- Bilboko, Donostiako eta Gasteizko udalak.
- Foru-aldundietako mendi-zerbitzuak
- Trafikoa Kudeatzeko Zentroa. Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritza.
- Foru-aldundietako herri-lan, garraio eta errepide zerbitzuak.
- Gurutze Gorria / DYA.
- Euskotren / FEVE / RENFE /ADIF/ Metro Bilbao.
- Arrantzaleen kofradiak.
- Kofradien federazioa.
- Eusko Jaurlaritzako Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza.
- EAEko udalak.
- Autobideak.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua.

Tenperatura altuen jakinarazpena:

- Ertzaintzaren Agintaritza eta Kontrol Zentroa (Ardatz)
- Osakidetzako larrialdiak
- Gobernuaren Ordezkariordetza
- Foru aldundietako Salbamendu eta Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzuak.
- Udalen eta Aiarako Partzuergoko Salbamendu eta Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzua.
- Bilboko, Donostiako eta Gasteizko udalak.
- Foru-aldundietako mendi-zerbitzuak.
- Trafikoa Kudeatzeko Zentroa. Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritza.
- Foru-aldundietako herri-lan, garraio eta errepide zerbitzuak.
- Gurutze Gorria / DYA.
- Euskotren / FEVE / RENFE /ADIF/ Metro Bilbao.
- EAEko udalak.
- Autobideak.
- Osasuna.
- Ingurumena.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua.

Itsasoko-kostaldeko arriskuen jakinarazpena:

- Ertzaintzaren Agintaritza eta Kontrol Zentroa (Ardatz)
- Trafikoa Kudeatzeko Zentroa. Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritza
- Osakidetzako larrialdiak
- Gobernuaren Ordezkariordetza
- Foru aldundietako eta Donostiako Udaleko Salbamendu eta Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzuak.
- Gurutze Gorria / DYA.
- Arrantzaleen kofradiak.
- Kofradien federazioa.
- Klub Maritimoak.
- Salbamendu eta Sorospen Federazioa.
- Foru aldundietako Hondartza Zerbitzuak.
- Donostiako Udaleko Hondartza Zerbitzua.
- Eusko Jaurlaritzako Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Portuen Zuzendaritza.
- EAEko kostaldeko udalak.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzua.

Baso-suteen arriskuaren jakinarazpena:

- Foru aldundiak, mendi-zerbitzuak zein suhiltzaile-zerbitzuak.
- Udaletako suhiltzaile-zerbitzuak.
- Boluntarioak.
- Ertzaintzaren Agintaritza eta Kontrol Zentroa (Ardatz).